

Boluntariotzako Lehen Euskal Plana

1. Aurkezpena

Boluntariotzari buruzko ekainaren 25eko 17/1998 Legearen onespena, Euskal Autonomia Erkidegoko boluntariotza garatu eta bideratzeko urrats handia izan da, inolako zalantzarik gabe. Lege hori aplikatuz, 2001eko abenduaren 5ean Boluntariotzaren Euskal Kontseilua eratu zen. 2002. urtean orain aurkezten dizuegun Boluntariotzako Euskal Plan hau landu dugu.

Boluntariotzako Euskal Plan hau lantzeko prozesuan, lehendik aipatu dugun legeaz gain aurkitu ditugun erreferentzia baliagarri guztiak kontuan hartzen eta, batez ere, gure Erkidegoan boluntariotzari loturiko eragile edo agente ezberdinek parte har zezaten ahalegindu gara.

Plan honek, datozen urteotan boluntariotza garatzeko funtsezkotzat jotzen ditugun aurrekariak, helburuak eta ekintza-lerroak biltzen ditu. Plan hau plan-sorta bateko lehenengoa da. Ondoren egiten diren planek, une bakoitzean egiten denak aurrekoak lortu duena oinarritzat hartuko duelarik, lehendik aipatutako Legearen esparruan Euskal Autonomia Erkidegoan boluntariotza ahalik eta gehien indartzeko aukera emango dute.

2. Aurrekariak

2.1. Planaren xedea eta norainokoa

Boluntariotzako Euskal Plan hau, hasiera batean, onesten denetik kontatzen hasi eta hiru urteko aldi batean pentsatuz landu da. Aldi hori, instituzio baten edo bestearen

ziklo politikoak kontuan izan gabe ezarri da. Lehen Plan honentzat hiru urteko aldia egokitzen jo dugu, esperimentala eta aitzindaria dela kontuan izanik. Ondoren egiten diren planetan aldi edo epe luzeagoa ezartzeko aukera aztertuko da. Dena den, ezarritako hiru urteko epean inplikaturiko eragile edo agenteei urteko jarduketara proiektu edo proposamenak egitea proposatuko zaie, Planaren helburuak lortzeko arian ariko aurrerabidearen mesedetan.

Euskal Autonomia Erkidegoan boluntariotzaren alorrean diharduten eragile edo agente guztien estrategiak eta jarduketak bultzatu eta uztartzea du helburu. Hala ere, hori ez da inolako oztopoa izango Eusko Jaurlaritzak, bera baita Plana onesten duena, hemen proposatzen diren orientabideak hartu eta aplikatzerakoan agente edo eragile publiko eta pribatu horietako bakoitzaren autonomia errespetatu eta indartu nahi izango balu.

Plan honek, Eusko Jaurlaritzako sail ezberdinen, Foru Aldundien, Udalen, boluntarioak dituzten erakundeen eta beste gizarte-eragile edo agenteen planen eta ekintzen sinergiarik interesgarrienak eta adostasun-mailarik handiena lortu nahi du. Plana lantzeko prozesua, zeinean agente horiek guztiek parte hartu duten eta konprometitu diren, goian adierazitakoa lortzeko oinarri garrantzitsua da.

Boluntariotzako Euskal Plana, plan estrategikoa eta irekia dela ulertzen da. Estrategikoa da, boluntariotzaren etorkizunean eragin handia izan nahi duten helburuak eta jarduketara-lerroak proposatzen dituelako. Plan honen helburua ez da gure erkidegoan boluntariotzarekin erlaziorik bat duten plan eta jarduketa ezberdinak biltzen dituen dokumentu soila izatea, orain arte egindakoa onartuz eta errespetatuz, euskal boluntariotzaren errealitatea aldatu edo hobetzeko prozesu batean pixkanaka borondate operatiboak bateratuko dituen proposamen estrategiko bat lantzen hastea baizik. Plan batek, estrategikoa izan dadin, egingarria den eta aldi berean eragin handiagoa lortzen duen jarduera aukeratzen asmatu behar du.

Boluntariotzako Euskal Plana baliabide ireki eta dinamikoa izateko landu da, eta beraz, gauzatzen ari denean bitarteko ebaluazioak eta kanpoko faktore edo gorabehera ezberdinen ondoriozko doikuntzak egin daitezke, ez badute plana ahultzen, noski.

Horregatik, euskal boluntariotza gauzatzen den esparruan eragina duten erabaki edo egoera politikoak, ekonomikoak edo bestelakoak arretaz aztertu beharko dira.

2.2. Erreferentziako Kontzeptuak

Plan honen ondorioetarako, funtsezko zenbait kontzeptu azpimarratu nahi ditugu, horiek aldeaz aurretik argitu gabe plana egitea edo ulertzea zaila izango litzatekeelako. Lehenengoa boluntariotzaren kontzeptua da, Euskal Autonomia Erkidegoko Boluntariotzari buruzko Legean adierazten dena. Legearen 2. artikuluan ondokoa dio: "pertsone fisikoek aurrera eramaten dituzten interes orokorreko ekimenen multzoa da boluntariotza, ekimen horiek honako baldintza hauek betetzen badituzte:

- a) Norberaren probetxurako ezer lortzeko asmorik gabekoak izatea eta elkartasunak bultzatuak izatea.
- b) Borondatezkoak eta askatasun osoz eginak izatea; arrazoia lan, funtzionariotza edo merkataritza-harremana ez izatea, ez eta obligazio pertsonala edo betebeharr juridikoa ere.
- c) Irabazi-asmorik ez duten erakundeen bidez eta programa edo egitasmo zehatzei jarraiki eginak izatea.
- d) Ordainsaririk gabeak izatea.
- e) Ordaindutako zerbitzu profesionalak inolaz ere ez ordezkatzeara".

Oso garrantzitsua izango da boluntariotzaren kontzeptua ongi definitu eta mugatzea eta, adibidez, konpromisoari, egonkortasunari, autonomiari, dedikazioari eta antzeko kontzeptuei lotzea. Edonola ere, Plan honek suspertzea eta bateratzea du helburu, eta boluntariotzaren kontzeptuaren hainbat erabilera bidezko daudela onartzen da, pertsona askok beren burua oso zentzu ezberdinetan hartzen baitute boluntariotzat.

Definizioarekin jarraituz, Legearen 3. artikulua ondokoa dio: "interes orokorrekotzat jotzen diren ekimenak honakoak dira: gizartearen edo pertsonaren onerako lan egiteko

konpromisoa dutenak, esparrua edozein dela ere, hots, gizartea, komunitatea, hiria, kultura, garapena, ingurumenaren babesa edo antzekoa”.

Gure ustez, aurreko idatz-zatiak, zenbait esparru espresuki aipatu ondoren "edo antzekoa" adierazten duenean, horietan barne hartutzat jo daitezkeen esparruetan edo beste zenbait esparrutan boluntariotzari atea zabalik uzten dio. Izan ere, hezkuntza, osasuna, astialdia, babes zibila, kirola edo erlijioa aipa daitezke, besteak beste. Bestalde, adierazi behar da sailkapen hauek, askotan, boluntariotzatik kanpo fenomeno horri buruz dagoen ikuspegiarekin zerikusi handiagoa dutela, boluntarioen bizipenarekin baino.

Jasotako definiziora itzuliz, boluntarioen eta erakundeen arteko lotura argi eta garbi agertzen da. Euskal Autonomia Erkidegoko Boluntariotzari buruzko Legearen 8. artikulua arabera, “Boluntarioak dituzten erakundeek, edozein lege-ereduri dagozkiola ere, baldintza hauek bete beharko dituzte: legearen arabera osatuak izatea, nortasun juridiko propioa edukitzea, irabazi-asmorik ez izatea, Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumenen barruan fundazio eta elkarteei dagokien erregistroan behar bezala erregistratuta egotea eta interes orokorreko ekintzen barruan programak edo egitasmoak garatzea (lege honetako 3. artikuluan zehaztuak)”.

Ondoren, zera dio: “boluntariotzako erakunde izendapena ondoko hauek hartuko dute: aurreko baldintzak betetzeaz gain kide gehienak boluntarioak dituztelarik, egiten dituzten programa edo egitasmo gehienak batik bat boluntarioen bidez egiten dituzten erakundeek”.

Plan honi begira, erakundeei buruz hitz egiten dugunean, boluntarioak dituzten erakunde guztiak aipatuko ditugu, une honetan boluntariotzako erakundeen (legeak adierazten duen zentzu hertsian) eta boluntarioak dituzten gainerako erakundeen arteko desberdintasuna ezarri gabe. Eta irizpide berari jarraitu zaio Boluntariotzako Erakundeen Errolda Orokorraren funtzionamendu-araudia onartu eta boluntariotzari buruzko zenbait alderdi arautzen dituen irailaren 1eko 169/2000 Dekretuan.

2.3. Boluntariotzaren esparrua

Politika publikoek, oro har, eta Boluntariotzako Euskal Planak, bereziki, esparru jakin batean eragina izatea du helburu, eta esparru horretan, Plana onesten duen instituzio publikoaz gain kontuan izan behar diren beste eragile eta dinamika batzuk egon badaude (ikus 1. eranskina).

Boluntariotzaren esparrua irudikatu nahi badugu, lehenik boluntarioen ekintzaren xede diren pertsona eta komunitateei erreparatu behar diegu. Horiek dira boluntariotzaren izateko arrazoia, eta horiei eta horien premiei jarraiki orientatu beharko da boluntarioen ekintza.

Boluntariotza aipatzen dugunean, pertsona batzuek baldintza jakin batzuetan burututako jarduera-sorta bati buruz hitz egiten ari garela esango dugu ondoren. Lehenik eta behin, adierazi beharra dago pertsona asko boluntarioak direla baina ez direla horretaz ohartzen. Hau da, boluntariotza (edo boluntarioa) hitza espazio legegile, politiko, zientifiko, mediatiko edo sozial jakin batzuetan oro har erabiltzen den arren, horrek ez du esan nahi benetan dauden boluntarioek beren nortasuna irudikatu edo eraikitzeko hitz hori erabiltzen dutenik.

Era berean, boluntarioak dituzten erakundeek, nortasuna eraikitzerakoan, sozialki aurkezterakoan eta espazio publikoan jarduterakoan ez dute beti boluntariotzaren kontzeptua erabiltzen. Boluntarioak dituen erakunde batek identifikatu eta garatzeko erabil ditzakeen alderdiei dagokienez, boluntariotzaren alderdiaz gain, eta hiru adibide ezartzearen, erakundearen zeregina, haren kideen ezaugarriren bat edo kokapen geografikoa aipa ditzakegu. Beraz, hiru adibideekin jarraituz, alkoholismoaren prebentziorako erakunde batek, emakume-erakunde batek edo auzo jakin bateko erakunde batek boluntarioak izan ditzake edo, nolabait esateko, boluntariotzako erakunde ere izan daiteke, era horretan identifikatzen ez den arren.

Edonola ere, erakunde horiek, bertan boluntarioek garrantzi handia duten ala ez edo boluntarioak dituzten erakundeak direla ohartzen diren ala ez kontuan izan gabe,

aztertzen ari garen esparruan kontuan izan beharreko eragile garrantzitsuak dira. Garrantzitsuak dira, halaber, erakunde horiek osatzen dituzten sareak (edo federazioak, edo plataformak, kasuen arabera), askotan sare horietan boluntarioak dituzten erakundeak boluntarioak ez dituztenekin elkartzen diren arren, adibidez beste zeregin komun bat dela medio.

Adierazpen hori ez da dferrikakoa, izan ere, normala dirudi erakunde bat xede berbera duten beste batzuekin taldekatzea edo koordinatzea (boluntarioak dituzten ala ez berdin diolarik). Normalki, erakunde horien helburu nagusia hartzaileak dira, gainera horrela behar du izan, eta haien beharrian eta nahiei erantzun egokia ematen saiatzen dira. Horrela, boluntariotza zeharkako tresna garrantzitsua da, baina ez du nahitaez lehentasuna izan behar erakundeen autoidentifikazio, garapen eta artikulazioan.

Esparru horretan jarraituz, hainbat mailatako herri-administrazioak ere aurki ditzakegu (gutxienez, nazioartekoak, estatuetaoak, erkidegoetakoak, lurraldeetakoak eta udaletakoak). Berrito azpimarratu nahi dugu administrazioak erakundeekin batez ere egiten dituzten zerbitzuen edo esku-hartzeen arabera erlazionatzen direla (eta boluntarioak edukitzea ala ez, bigarren maila batean geratzen da). Beraz, herri-administrazioen eta sare eta erakundeen arteko elkarrizketa-prozesuetan boluntariotza, berriz ere, zeharkako edo bigarren mailako elementua izango da, eta gainera oso logikoa dirudi hori horrela izatea.

Baina hori ez da beti horrela gertatzen, izan ere, herri-administrazioek, zenbait kasutan eta neurri jakin batean, boluntariotza elkarrizketaren eta esku-hartzearen oinarritzko elementutzat ere hartzen baitute. Hori kontuan izanik, funtsezkoa da esku-hartze publikoen barruan bi mota bereiztea: alde batetik, boluntariotzarekin (zuzenean) erlazionatuta dagoen esku-hartzea, eta bestetik, boluntariotzarengan (zeharkako) eragina izan dezakeen beste topiko batzuei loturik dagoen esku-hartzea.

Gauza batek argi geratu behar du: esku-hartze publikoaren sailkapena egiterakoan (boluntariotzarekin zuzenean edo zeharka erlazionatuta dagoen kontuan izanik), ez dugu kontuan hartzen instituzio horrek "boluntariotza" hitza erabiltzen duen ala ez.

Bestalde, zuzeneko esku-hartzea nahiz zeharkakoa deritzegun horiek ezinbestekoak dira, eta horien arteko koherentzia eta sinergia bilatu behar da.

Esparru honen barruan, Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurraldeetan eta beste zenbait lekutan boluntariotzarekin erlazionaturik sortu diren agentziak deiturikoak nortasun propioa duten agente gisa definitu ditugu. Gure ustez, elkarren artean ezberdintasunak izan arren, gure ingurunean nortasun propioa duten eta ekarpen espezifikoak egiten dituzten eragiletzat har ditzakegu.

Azkenik, ingurune soziala aipatu behar dugu, eta honen barruan bereziki interesgarriak izan daitezke (lehendik aipatu ditugun erakundeen jardueraren pertsona hartzaileekin batera) sindikatuak, mugimendu sozialak, boluntariorik ez duten hirugarren sektoreko erakundeak, komunikabideak, elizak, enpresak edo hezkuntzaren mundua, esate baterako. Boluntariotzari laguntza-mota ezberdinak ematea erabaki duten Aurrezki Kutxak edo Fundazioak bezalako erakundeek garrantzi berezia izan dezakete.

Plan hau lantzerakoan agente horiek guztiek parte hartu dute, eta lehendik egiten ari ziren lana abiapuntutzat hartu da. Edonola ere, esparru konplexu honetan esku hartzearen hartzaile diren eragile edo agenteengan modu ezberdinean eragina izango duten helburuak eta ekintza-lerroak ezarriko dira. Aipatutako eragile edo agenteetako bakoitzaren beharrezan eta ekarpenak askotarikoak izan daitezke, baina horiek guztiak Plan honetan bildu behar dira, proposamen estrategikoa den neurrian.

2.4. Euskal Autonomia Erkidegoko boluntariotzaren egoeraren diagnostikoa

Boluntariotzako Euskal Plan honetan, bere ezaugarriak kontuan izanik, Euskal Autonomia Erkidegoko boluntariotzaren egoeraren azterketa, ebaluazioa edo diagnostikoa egin behar dela uste dugu. Eta ondoren hautatzen diren helburuak eta ekintza-lerroak horretan oinarrituko dira. Hemen aurkezten dugun diagnostikoa egiteko,

orain arte eskura egon den informazioa kontuan izan da, eta Boluntariotzaren Euskal Kontseiluan prozesatu da.

Plana gauzatzeak analisiak eta balorazioak egiteko oinarri izango diren ebidentzia berriak edukitzeko aukera ematen duen neurrian, hemen aurkezten den diagnostikoa aberastu edo zuzendu ahal izango da, eta Boluntariotzaren Euskal Kontseiluak, Legear ezarritakoaren arabera, gaiarekin erlazionatuta dauden politika publikoen oinarri gisara beharrezkoa den boluntariotzaren egoerari buruzko hausnarketa eta balorazioan protagonista berezia izango da.

Diagnostiko hau garatzeko, indarguneak, ahuleziak, aukerak eta arriskuak barne hartzen dituen eskema ezaguna erabiliko dugu, boluntariotzara eta bere ingurune sozialera dinamikoki hurbiltzeko aukera ematen digula uste baitugu. Eskema hau erabiltzen den guztietan egin ohi dugun bezala, adierazi behar dugu alderdi bakoitza atal batean edo bestean sartzeari erlatibizatu egin behar dela, adibidez zenbait ahulezia indargune bihurtzeko eta, aldiz, zenbait arrisku aukera.

2.4.1. Indarguneak

Euskal Autonomia Erkidegoko boluntariotzaren aurkitzen ditugun indarguneak hautatu eta, hasiera batean eskematikoki, adierazi behar izango bagenitu, ondoko hauek adieraziko genituzke:

2.4.1.1. Boluntariotzaren lehen indargunea, seguru asko, barne biltzen eta transmititzen dituen balioen giza kalitate sakona da. Izan ere, jakin badakigu gaur eta hemen boluntariotza deritzoguna ez dela fenomeno berria, gure gizartean eta beste batzuetan oso zaharrak diren balio eta praktiken bertsio berri bat baizik.

2.4.1.2. Bigarren indargunea da Euskal Herrian elkartzeko edo lankidetzan jarduteko tradizio edo espiritu sendoa dagoela, eta hori frogatzeko, adierazi behar da gure herria,

kasu askotan, aitzindari izan dela gizarteratzeko eta ekintza kolektiborako era ezberdinak sortzeko eta garatzeko garaian.

2.4.1.3. Nahiz eta zenbait erakundek joera-aldaketa bat hasi ote den adierazten duten, badirudi gure inguruko herrialdeetan boluntariotza aztertzen duten adituak nahiko ados daudela boluntariotza kuantitatiboki hazten ari den fenomeno dela adierazteko garaian, azken hamarkadak aztertzen baditugu behitzat. Gure kasuan %10aren inguruko zifrak erabili ohi ditugu boluntario-kopuruari buruz hitz egiterakoan, egin diren azterlanek, esate baterako, denbora-dedikazioari edo pertsona bat boluntariotzat hartzeari ala ez hartzeari dagokionez irizpide ezberdinak erabiltzen dituzten arren.

2.4.1.4. Gure ustez, gizartean duen onarpena eta izen ona pixkanaka (gorabeherak dituen arren) hobetzen ari den errealitatea da, eta jaso izan dituen kritikak eta erreparaoak gutxitzen joan dira. Batez ere hirugarren sektorea ukitzen duen fenomeno da, eta baliteke ekonomiaren ikuspuntutik sektore garrantzitsu gisa sendotzea eta onartua izatea, eta antolatzen den gizarte zibilak globalizazio-prozesuan eragile garrantzitsu gisa balioberritzea, sozialismo errealearen porrotaren ondoren.

2.4.1.5. Pixkanaka bada ere, boluntariotzaren barruan heterogeneotasuna gehitzen ari da. Emakumeek, betidanik, beste gizarte-eremu batzuetan baino presentzia handiagoa izan dute boluntariotzan, eta gaur egun, adibidez, adinari dagokionez aniztasuna handitzen ari da, gero eta pertsona helduagoek boluntariotzan dihardutelako. Bestalde, boluntarioen artean gero eta gehiago ikus daitezke hasiera batean boluntariotzaren hartzaitzat hartuak izan diren gizataldeetako pertsonak (bi adibide: ezintasunen bat duten pertsonak, eta etorkinak). Gero eta onartuagoa dago boluntariotzan mota guztietako pertsonen parte har dezaketela.

2.4.1.6. Era berean, oso beharrezkoa dirudi gaur egungo boluntariotza eratzeko beste alderdi garrantzitsu bat biltzea: boluntarioak erakunde bat baino gehiagoko kide izatea aldi berean. Gaiari buruzko azterlan eta argitalpenek bildu dute alderdi hori, eta erakundeetan sartzen diren boluntarioak hartzen dituzten pertsonak horrekin ari dira;

alderdi giltzarria da boluntarioen nortasun berria ulertzeko eta boluntarioak ardatz nagusi gisa dituzten galderak, planak eta programak egituratzeko.

2.4.1.7. Boluntariotzaren beste indargune bat erakundeen heterogeneotasuna da. Boluntarioak dituzten erakundeen neurrien, jarduketarloan (gizarte-boluntariotza da nagusi) edo ikuspegi ideologikoen aniztasuna ere, inolako zalantzarik gabe, indargune bat da. Era berean, tokian tokiko (landa zein hiri mailakoa) inkardinazio sendoa duten erakundeetatik hasi eta nazioarteko erakundeak ere aurki ditzakegu..

2.4.1.8. Boluntariotzaren beste indargune bat da haren esparrua egituratu eta sendotu egin dela. Hona hemen hori frogatzen duten zenbait adibide: gaiari loturiko legeria (eta Boluntariotzaren Euskal Kontseiluaren sorkuntza), boluntariotzaren kontzeptuaren inguruan sortutako sare-esperientziak, etika-kodeen lantzea, Herri Administrazioek boluntariotzari emandako laguntzak, edo Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurraldeetan agentzia espezializatuak agertzea..

2.4.1.9. Beste indargune bat, proposamen sortzaileak, esperientzia berritzaileak eta, azken batean, boluntariotza bezalako sare bizi eta aldakorrean askotan agertzen diren praktika egokiak dira

2.4.1.10. Azterlanetan ikus daitekeenez, beste indargune bat boluntarioek lortu duten kualifikazio handia da (gainera, askotan boluntario-lanarekin erlazionaturiko gaietan).

2.4.2. Ahuleziak

Euskal Autonomia Erkidegoko boluntariotzan aurkitzen ditugun ahulezien artetik, ondoko hauek adieraziko genituzke:

2.4.2.1. Indarguneen artean boluntario-kopurua handitzen ari dela aipatu dugun arren, eta nahiz eta alderdi kuantitatiboa garrantzitsuena ez den, ezin dugu ahaztu azterlan askoren arabera gure boluntariotzaren neurria (eta, oro har, hirugarren sektorearena)

oraindik ere gure inguruko herrialdeetako baina txikiagoa dela, herrialde horietan boluntariotzak eta elkarlanak gurean baino tradizio handiagoa dutelako.

2.4.2.2. Sektore honetan, boluntario askok lan-konpromisoa erraz hausten edo eteten dutela aipatu ohi da (eta ondorioz, erakundeetan eta sektorean oroimen historikoa galtzen da, eta erantzukizunetan errelebua emateko zailtasunak daude). Zenbaitetan honi boluntariotzaren ikuspegi edo bizipen utilitarista edo instrumentala lotzen zaio, askotan funtsik gabeko moden eraginpean edo lan-munduratzearen logikaren pean dagoelarik. Fenomeno hau alderdi kulturelekin (balio sozialak), boluntariotzaren normalizazio edo instituzionalizazioarekin edo, beste adibide bat jartzearen, lan-merkatuak gaur egun azaltzen dituen zenbait ezaugarriekin erlazionaturik egon daiteke. Hala ere, gure inguruan boluntario gisa laguntzeko gero eta aukera handiagoak eskaintzen dituzten gero eta erakunde gehiago izatearekin erlazionatuta egon daiteke.

2.4.2.3. Euskal boluntariotzaren beste ahulezia bat da askotan bere burua boluntario gisa nerri mugatuan identifikatzen duela. Erroldan oso erakunde gutxi barne hartu izana da horren adibide garbia (gutxi gorabehera 100 erakunde, eta berez milaka daude), horretarako beste zenbait arrazoi badaude ere. Lehen adierazi dugun bezala, zenbait erakunde boluntarioak dituzten erakunde bezala egituratzeko esperientziak izan diren arren, onartu beharra dago dinamika hori ahula dela erakundeak egituratzeko beste dinamika batzuekin alderatuz gero. Horren arrazoa zera da: boluntario askok ez dute eskubide eta betebeharrei buruzko kontzientzia sendoa.

2.4.2.4. Gai honek eska dezkeen azterketa sakonagoa alde batera utzita, boluntariotzaren beste ahulezia bat ondokoa da: boluntarioak dituzten erakundeetan zein herri-administrazioetan Boluntariotzaren Legea ez da betetzen.

2.4.2.5. Beste ahulezia bat hauxe da: Euskal Autonomia Erkidegoan boluntariotzaren errealitateari buruzko oso ezagutza enpiriko eta kritiko (kuantitatiboa eta kualitatiboa) eskasa. Era berean onartu behar da euskal errealitate sozialaren edo une honetan aztertzen ari garen interes-eremutik hurbil dauden errealitatearen alderdi espezifiko

ezagutzara egin diren edo egiten ari diren zenbait hurbilketa ez direla behar bezala aprobeztatu boluntariotza-errealitatearen ezagutzaren ikuspuntutik.

2.4.2.6. Esperientzia interesgarriak egin diren arren, giza baliabide boluntarioen kudeaketa egokia eta sistematikoa erakundeen (eta boluntariotza-esparruaren) gainditu gabeko irakasgaia da, ez direlako boluntariotzaren ekarpena planifikatu eta baluatzeko tresnak behar bezala erabiltzen eta boluntarioei ez zaielako laguntza eskaintzen ondoko gaietan: hurbilketan, hautaketan, integrazioan, aintzat hartzen, prestakuntzan, parte-hartzean, laneko osasuna zaintzen, lan-garapenean eta irteeran. Bestalde, zenbait kasutan giza baliabideen kudeaketa praktika desegokiak egiten dira, eskasiaren ondorioz boluntarioen erabilera instrumental soila egiten baita.

2.4.2.7. Legeak proposatzen dituen informazioa trukatzeko eta proposamenak egiteko baliabideek (zeinetan boluntariotzaren esparruan adierazitako agente edo eragileak barne hartuta dauden) oso egitura ahula dute eta eragile edo agenteek oso gutxi ezagutzen dituzte. Boluntariotzaren Euskal Kontseilua bera, horren guztiaren elementu nagusia den arren, ez da oso ezaguna eta ez du onarpen handirik lortu.

2.4.2.8. Esparru horretan, boluntarioen beraien ordezkari-tza-maila oso txikia da, eta askotan barne hartuta dauden erakundeen izenean bertan boluntario ez diharduten pertsonak hitz egiten dute.

2.4.2.9. Boluntariotza duten erakundeetan emakumeen parte-hartze handia indargunetzat hartu dugun arren, zenbait azterlanek adierazten dute boluntariotzaren munduan generoen arteko bereizketa edo hesia nabarmena dela, adibidez erakundeetan gizonei eta emakumei ematen zaizkien zeregin eta erantzukizunei dagokienez. Gauza bera esan daiteke gizartean dauden beste diskriminazio-fenomeno batzuei buruz, boluntariotzaren esparruan ez baitira desagertzen.

2.4.2.10. Boluntariotzaren ahulezien artean, ordezko gizarte-zerbitzua (dagoeneko desagertu da) edo boluntario-jardueretan dihardutenei emandako hautespen libreko

unibertsitate-kredituak bezalako fenomenoetara egokituta dauden zenbait dinamika daudela adieraz daiteke.

2.4.2.11. Azkenik, oro har irabazi-asmorik gabeko sektorearen ahulezia batzuk boluntariotzaren ahuleziazat har ditzakegu. Horien artean, erakunde-kopuru handi bat ukitzen dituztenak adierazi ohi dira: antolamenduaren atomizazioa (txikia izateagatik, konexiorik ez izateagatik, edota gaizki ulertutako lehiakortasunagatik), mendetasun ekonomikoa (herri-administrazio batzuekiko klientelismoa), eskura azpiegitura gutxi izatea, kudeaketaren eta ebaluazioaren akatsak, konexio digital eskasa, eta internazionalizazio kaskarra.

2.4.3. Aukerak

Euskal Autonomia Erkidegoko boluntariotzan ditugun aukeretatik, ondoko hauek azpimarratuko genituzke:

2.4.3.1. Adituen ustez, gizartearen modernizazio-prozesuak eta haren konplexutasuna handitzeak, era berean, gizarte-premiei erantzuteko baliabide ugari eskatzen dituzte. Testuinguru honetan, komunitatea, estatua eta merkatuarekin batera, hirugarren sektorearen egitekoa, eta honen barruan, berezko nortasun eta protagonismoarekin, boluntariotzaren munduaren egitekoa ez da zalantzan jartzen. Are gehiago European, bertan diskurtso politikoak kapital soziala ("gizarte aktiboa" eta "herritarren parte-hartzea" bezalako kontzeptuei loturik) lehiatzeko indargunereren iturri iraunkorizat hartzen baitu.

2.4.3.2. Modernizazio-prozesu horrek (bizi itxaropenaren luzatzearekin, denbora eta espazioaren erabileran izandako zenbait aldaketa garrantzitsurekin, eta bizitzaren ibilbidean gero eta indibidualizazio eta aniztasun handiagoarekin), boluntario-ekintzarako une, espazio, erronka eta modalitate berriak eskaintzen ditu, eta giza talde berriak boluntariotzan barne hartzea ahalbidetzen du.

2.4.3.3. Botere publikoen, irabazizko sektorearen, komunitatearen eta hirugarren sektorearen arteko paper-banaketa ezberdin baten testuinguruan, gobernuz kanpoko erakundeen munduak (eta bereziki boluntariotzak) gizarte-sektore jakin batzuen aurrean duen ospe edo onarpen soziala ere aukera interesgarria da, gizarteak sektore honi loturik itxaropen garrantzitsuak dituen neurrian.

2.4.3.4. Irabazizko enpresa-munduan iritzi etiko jakin batzuei eta enpresen erantzukizun soziala deiturikoari gero eta garrantzi handiagoa eman ohi zaie, eta horren ondorioz, zenbaitetan boluntarioak dituzten erakundeekin parte-hartze edo lankidetzaren modu berriak bilatzen dituzte.

2.4.3.5. Globalizazio-prozesuak, informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrien garapen garrantzitsuarekin, boluntariotzari nazioartemailan egituratu eta indartzeko aukera errazten dio, internazionalizazio horrek ekar ditzakeen aberaste eta garapenarekin. Informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriek, edonola ere, erlazionatzeko eta parte hartzeko espazio eta modalitate berriak eskaintzen dituzte.

2.4.3.6. Ezagutzaren gizaritzat definitu den gizartean gaude, eta badirudi erakundeen aktibo ukiezinek aktibo ukigarriek baino balio handiagoa dutela. Eraikitako ezagutzak, elkarren arteko sentipenak eta balio komunak balio handiko ondare bihurtu dira, horiek erlazio, sistematizazio eta ikaskuntza-prozesuetan kudeatzen dakiten erakunde eta sareentzat.

2.4.4. Arriskuak

2.4.4.1. Boluntariotzak indar handirik ez duenez gero, arriskuaren gizarte gisa definitutako gizarte honetan arriskupean dagoela nabari du, aukerak gehitzen zaizkion heinean arriskuak ere gehitzen zaizkiolako. Arrisku horiek, adibidez, botere publikoetatik etor daitezke, demokrazia-eremuak murrizteko nahi eta aukera gehiago izan ditzaketelako, edota botere ekonomikoetatik, askotan gizartearen kontrol

txikiarekin eta nazioz gaindi dihardutelako, bai eta botere mediatikoetatik ere, gure gizarteetako kulturetan eragin handia dutelako.

2.4.4.2. Egungo gizarte-aldaketaren ezaugarriak kontuan izanik (aldaketa bizkorra, lan-merkatuaren aldaketa sakonak, gizartearen dualizazio eta desberdintasun handia, sekularizazioa eta balio-aldaketa, eta pertsonak bizitzeko aukeratzen dituzten biziguneen aniztasuna), boluntariotzako erakundeak eta sareak erraz desorientatu eta gizarte-ingurunetik deskonektatu daitezke, hura ulertzeko eta bertan barne hartzeko ahaleaginean.

2.4.4.3. Lan-merkatu baztertzailleak (adibidez, gazteak, emakumeak edo erretiratzeko zorian dauden pertsona helduak baztertzen dituena), krisialdian dagoen edo berregituratzen ari den (bai eta, askotan, uzkuratzen edo pribatizatzen ere) ongizate sistemak, zenbait gizarte-mugimenduren atzera-biltzeak, edo balio postmaterialista jakin batzuen gaurkotasunak edo sustapenak boluntariotzaren gune edo rol berriengan eragiten duten neurrian, boluntariotza, nolabait esateko, ingurune eta prozesu horietan gertatzen diren aldaketen mende dago.

2.4.4.4. Mezu eta marketan oinarritutako gizartean, boluntariotzak ahuleziak izan ditzake bere irudia kudeatzeko, hura berez den eta izan nahi duen bezala agertzeko, beste gune eta agente batzuetatik datozen diskurtso eta baloreen kolonizazioa jasan gabe, izan ere, eragile edo agente horiei beharbada boluntariotzaren zeregina bigarren mailakoa eta funtzionala izatea interesatzen baitzaie. Parte-hartzea edo elkartasuna bezalako kontzeptuen inguruan dagoen zarata eta anbiguitasuna dira horren adibide argia, batez ere boluntariotza parte-hartze eta elkartasun horientzat esparru pribilegiatu gisara aurkeztu nahi denean, baina beste esparru bat besterik ez da, beste batzuen osagarri.

2.4.4.5. Boluntariotzak izan dezakeen beste arrisku bat ondokoa da: gizarteko beste eragile edo agente batzuek bete behar dituzten guneetan boluntariotzaren sasiko erabilera egitea, adibidez sozialki soldatapeko enpleguaren berezko gisara sendotu diren eremuetan.

2.4.4.6. Era berean, boluntarioak dituzten erakundeek herri-administrazioen zenbait xedapen eta ekintza arriskutzat hartzen dituzte, batez ere kudeaketa-ahalmen txikia duten erakundeen administrazioarekiko hurbilketa oztopatzen duten eskakizun edo ahulezia burokratiko asko ezartzen dituztelako. Era berean, boluntariotzajardunaren finantzaketa publikorako bitartekoen ezegonkortasuna ere arriskutzat jotzen da.

2.4.4.7. Boluntarioek, askotan, boluntariotzajarduera jakin batzuk burutzerakoan ia inolako laguntzarik gabe beren gain hartu behar dituzten kostu ekonomiko eta profesionalak ere arriskutzat hartzen dituzte.

2.5. Balioak

Boluntariotzari buruzko Legearen zioen adierazpenean ondokoa adierazten da: "lege honen ekarpen nagusia hauxe da; Euskal Administrazioak boluntariotza sustatzeko hartzen duen konpromisoa, aldi berean herritar guztiek gizartea eraikitzen jarduteko duten eskubidea azpimarratuz". Ondoren, Lege horren 4. artikulua ondokoa dio: "Esparru ezberdinetako boluntariotzako ekimenek balio hauek izango dituzte oinarrian: elkartasuna, partaidetza, doakotasuna, autonomia aginte publikoen aurrean, bereizkeriarik eza, aniztasuna, integrazioa, prebentzioa, gizartearen sentsibilizazioa eta, oro har, gizarte demokratiko, moderno eta parte-hartzaile, zuzen eta berdintasunezko batean elkarbizitza errazten duten balioak". Azkenik, 11. artikulua berriro adierazten du ez direla administrazioak beren erantzukizunetik aske utzi behar.

Boluntariotzari buruzko Legeak, beraz, printzipio, balio, aukera edo irizpide-esparru bat eskaintzen du, eta Boluntariotzako Euskal Planak, noski, hori onartu egiten du, ondoko ezaugarriak izango dituen boluntariotza bultzatuz (kontuan izan ondoko elementuen ordenak ez duela inolako lehentasunik adierazten):

- Askatasunean egindako doako elkartasunaren eta gizarte-altruismoaren emaitza izatea.
- Boluntarioentzako atsegina, egokia eta osasungarria izatea.
- Espazio publikoan herritarrek parte hartzeko baliabide izatea.
- Sentsiblea eta hurbilekoa, eta gizartearen beharrezanean eman beharreko erantzuna aurrez ikusteko gai izatea.
- Oso ezberdinak diren pertsonak barne hartzea eta erakartzea.
- Bere egitekoa besteen kalterako ez izatea, aitzitik, soldatapeko enpleguarekin, ekonomi garapenarekin, gizarte-sare ez formalekin edo herri-administrazioek gizarte-premiei erantzuteko hartutako konpromisoarekin erlazionatuta egotea.
- Sortzailea eta berritzailea izatea.
- Gizalegezko konpromisoaren adierazpen eta bultzatzaile izatea.

- Botere publikoarekiko, irabazizko sektoreekiko edo gizarteko beste agente edo eragileekiko autonomiaduna izatea egituratzen denean, lankidetzarako proposamenak aurkezten dituzenean edo kritikak egiten dituzenean.
- Gizarte-ehuna eraikitzen eta eraldatzen laguntzea (kapital soziala, erlazio-kapitala eta balio erkideak sortuz).
- Gizarte-bazterketa jasaten duten pertsona eta ingurune ahulenei lehentasuna ematea.
- Elkarrizketarako ahalmena duten erakunde eta sare sortzaile etairakoren parte hartzea, jardutea eta egituratuta egotea.
- Kritikoa eta prestatua izatea.

Printzipio horiek funtsezkoak izango dira, Planak praktika egokiak (eta praktika berritzaileak) aipatzen dituzenean edo boluntariotza esparru horretan diharduen eragile-multzoaren politiken eta ekintzen zeharkako elementu edo zuzeneko objektu gisa sartzeko proposamena egiten duenean zer esan nahi duen ulertzeko.

Atal hau amaitzeko, adierazi behar da Boluntariotzako Planaren helburuetako bat proiektu eta ekimen askok boluntariotzaren sustapena zeharkako elementu gisara barne hartzea dela, baina, era berean, zeharkako elementuak eta, bereziki, generoaren ikuspegia barne hartu behar dituela bereizkeria saihesteko eta sexuen arteko berdintasuna bultzatzeko. Beraz, Plana landu, burutu eta ebaluatzen denean, gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak eta beste zenbait bidegabekeria eta desberdintasun bultzatu eta areagotzen dituzten politika, antolaketa eta kultur baliabideak edo beste edozein baliabide identifikatu eta zuzentzeko konpromisoa azpimarratu behar da.

3. Helburuak

Planaren oinarri izango diren aurrekariak ezarri ondoren, ezarritako epearen barruan adierazitako esparruan lortu nahi diren emaitzak edo eraginak identifikatuko ditugu

orain. Planaren helburu nagusiak barne hartzen dituen lehen atalaren ondoren, espero diren bi emaitza edo lorpen-mota bereziko ditugu (ikus 2. eranskina):

- Planarekin espero diren edo lortu nahi diren emaitzak: hau da, garrantzitsu eta esanguratsutzat jotzen diren eta hasiera batean Planaren lanketarekin konprometituta dauden agente edo eragileen jarduketan bitartez lortu eta ebaluatu daitezkeen emaitza gisara identifikatzen diren lorpenak edo eraginak.
- Lortu nahi den edo espero den inpaktua: hau da, lortu eta ebaluatu nahi diren ~~da~~ horiengan nolabaiteko eragin-maila eduki nahi den baina Planaren esparrutik kanpo geratzen diren lorpenak edo eraginak. Planaren esparrutik kanpo geratzen dira eragin garrantzitsuen mendean daudelako, eta Planaren barne hartuta dauden eragile edo agenteek oraingoz horien gainean behar adinako kontrolik ez dutelako.

Logikoki, espero diren emaitzen lorpenak espero den inpaktuaren lorpenean eragina izango du. Beste era batean esanda, Planaren atal honetan identifikatu ditugun bi mailen arteko lotura logikoa (hasiera batean hipotetikoa den arren) nabarmendu beharko da.

Atal bakoitzean, lortu nahi diren edo espero diren lorpenak edo eraginak zenbait adierazle eta estandarrekin parekatuko dira, haiek lortu direla egiaztatzeko. Plan honetan, adierazle eta estandarrei dagokienez, lehenengoan asmatzea baino garrantzitsuagoa eta bideragarriagoa iruditzen zaigu etorkizunean sistematikoki osatu eta hobetu daitezkeen multzo bat proposatzea.

Helburu bakoitzaren alboan adierazle bat eta estandar bat proposatzea erabaki dugu, baina Planaren ebaluazio-prozesu espezifikokoak diseinatzen dituen pertsonak beste zenbait adierazle eta estandar gaineratu beharko ditu. Zehazki, ondokoa egin dezala eskatzen zaio:

- Prozesuen hartzaile eta protagonisten poztasuna islatzen duten adierazleak ahalik eta gehien barne hartzea.

- Emandako datuak beste aldagai batzuen arabera (adibidez, sexua edo adina) bereiztea, hala dagokion bakoitzean, horiek ez badira kontuan hartzen informazio balioduna ezkutuan gera daitekeelako.

Bi atal horiei dagokienez, boluntariotzaren esparruan, erakundeen eta horiek barne hartuta dauden sareen esparruan, herri-administrazio ezberdinen esparruan eta bestelako eragileak edo agenteak eta herritarrak barne hartzen dituen esparru orokorragoan lortu nahi diren edo espero diren lorpenak bereizi egingo dira.

3.1. Helburu orokorrak

Oro har, Plan honek aurrerapen edo hobekuntza esanguratsuak lortu nahi ditu ondoko gai hauetan:

- Boluntariotzaren prestakuntza, laguntze, berrikuntza eta partaidetzarako prozesuak, boluntariotzaren erakundeak sendotzea eta, azken batean, boluntario-jardunaren kalitatea hobetzea.
- Esparru horretan identifikatutako agente edo eragile ezberdinen harremanak eta trukeak egituratzea, eta horien autonomia eta erantzukizunen burutzapena indartzea.
- Esparru horretan dauden eragile edo agenteek Euskal Autonomia Erkidegoko boluntariotzaren egoera eta testuingurua ezagutzea

3.2. Espero diren emaitzak

Espero diren emaitzak aipatzen ditugunean, garrantzitsutzat edo esanguratsutzat jotzen ditugun eta, aldi berean, Planaren indarraldian zehar egin eta neur daitezkeela

iruditzen zaizkigun lorpen edo eraginei buruz ari gara, Planean aurreikusitakoez bestelako aldagaien eragina edozein izanik ere. Lorpen edo eragin horiek askotan beste batzuk lortzeko erabil daitezke, adibidez lortu nahi den inpaktuaren atalean aipatuko ditugunak lortzeko.

3.2.1. Boluntariotzan

Boluntariotzan ondoko emaitzak lortu nahi dira:

3.2.1.1. Euskal Autonomia Erkidegoko boluntarioek euren eskubide eta erantzukizunei eta, oro har, Boluntariotzari buruzko Legearen eduki eta garapenari buruzko ezagutza modu esanguratsuan gehitzea.

Adierazlea: Euskal Autonomia Erkidegoko boluntarioek Boluntariotzari buruzko Legearen existentziari buruzko ezagutza-maila gehitzearen ehunekoa.

Estandarra: %10

3.2.1.2. Boluntarioen protagonismoa handitzea boluntariotzari buruzko diskurtsoa landu eta adierazten dutenean.

Adierazlea: Boluntariotzari buruzko argitalpen-kopuruaren, tokiko, nazioko eta nazioarteko foroetako partaidetza-kopuruaren edo, oro har, boluntarioek boluntariotzari buruz jendaurrean egindako adierazpen-kopuruaren gehikuntza-ehunekoa.

Estandarra: %5

3.2.1.3. Boluntarioen gaitasunak hobetzea, lana hobeto egin dezaten.

Adierazlea: erakundeetako arduradunek erakunde horretako boluntarioen gaitasunekiko duten poztasun-maila handitzea.

Estandarra: %5

3.2.2. Erakundeetan

Boluntariotzako erakundeetan ondoko emaitzak lortu nahi dira:

3.2.2.1. Boluntariotzaren alorreko praktika berritzaileen burutzapena eta ikuspena.

Adierazlea: Euskal Autonomia Erkidegoan boluntariotzari loturik jendaurrean aurkeztu diren esperientzia berrien kopurua.

Estandarra: 25.

3.2.2.2. Boluntario-jardunerako estandar etikoak landu eta aplikatzea.

Adierazlea: Boluntarioek euren erakundeetan estandar etikoak landu eta aplikatzeari buruz azaltzen duten poztasun-maila.

Estandarra: %70ekoa edo handiagoa

3.2.2.3. Boluntarioak dituzten erakundeen autoidentifikazioa gehitzea boluntariotzaren kontzeptuari dagokionez.

Adierazlea: Boluntariotzarekin erlazionatutako ekintza eta prozesuetan parte hartzen duen erakunde-kopuruaren gehikuntza-ehunekoa.

Estandarra: %20

3.2.2.4. Lan sektoriala eta eremu bakar bati loturikoa gainditzen duten erakunde-arteko lankidetzak gehitzea.

Adierazlea: Ekintza horien kopuruaren gehikuntza-ehunekoa.

Estandarra: %5

3.2.2.5. Erakundeak Euskal Autonomia Erkidegoaren esparrua gainditzen duten sareetan barne-hartze maila gehitzea.

Adierazlea: Euskal Autonomia Erkidegoko erakundeen eta esparru hori gainditzen duten sareen arteko lotura formalen kopuruaren gehikuntza-ehunekoa.

Estandarra: %5

3.2.2.6. Erakundeak tokiko sareetan barne-hartze maila gehitzea

Adierazlea: Hurbileko lurralde-esparru bateko erakundeen arteko lotura formalen kopuruaren gehikuntza-ehunekoa.

Estandarra: %5.

3.2.2.7. Boluntarioak dituzten erakundeek parte hartzen duten sareak indartu eta egituratzea.

Adierazlea: Sare horiei loturiko erakunde-kopuruaren gehikuntza-ehunekoa.

Estandarra: %10.

3.2.2.8. Erroldan sartutako erakunde-kopurua modu esanguratsuan handitzea.

Adierazlea: Erroldan sartuta dauden erakundeetako boluntarioen guztizko kopuruaren gehikuntza-ehunekoa.

Estandarra: %100

3.2.2.9. Erroldan sartuta dauden erakundeen aniztasuna eta heterogeneotasuna handitzea, jarduera-esparruari dagokionez.

Adierazlea: Erroldako presentziari dagokionez, gutxienez hiru sektore minoritarioen presentziaren gehikuntza-ehunekoa.

Estandarra: %5

3.2.2.10. Erakundeetan boluntarioen estatutuaren kalitatea hobetzea.

Adierazlea: Boluntarioek erakundeetako boluntarioen estatutuari buruz azátzen duten poztasun-mailaren hobekuntza.

Estandarra: %10eko hobekuntza.

3.2.3. Herri-administrazioetan

Herri-administrazioetan ondoko emaitzak lortu nahi dira:

3.2.3.1. Boluntariotzaren presentzia, eragile edo agente publiko ezberdinen politika, plan, programa edo proiektuetan dagoen zeharkako elementu gisara, modu esanguratsuan gehitzea.

Adierazlea: Boluntariotza zeharkako elementu gisa barne hartzen duten politika, plan, programa edo proiektuen guztizko aurrekontu bateratuaren gehikuntza.

Estandarra: %20

3.2.3.2. Herri-administrazioek boluntariotza sustatzeko eta boluntariotzari laguntzeko zuzeneko politikak ezartzea eta gehitzea.

Adierazlea: Boluntariotza sustatzeko eta boluntariotzari laguntzeko zuzeneko politiken guztizko aurrekontu bateratuaren gehikuntza.

Estandarra: %10.

3.2.3.3. Herri-administrazioen eta boluntarioak dituzten erakundeen arteko harremanetan praktika egokiak eta bereziki egonkortasuna handitzea (Boluntariotzari buruzko Legearen 11. artikulua proposatzen duen eran).

Adierazlea: Boluntariotzako erakundeetako zuzendariak herri-administrazioen aldetik jasotako laguntzaren egonkortasunari buruz azaltzen duten poztasun-maila.

Estandarra: %70.

3.2.3.4. Administrazio bakoitzean boluntariotzaren alorrean eskumena duten organoak identifikatzea eta, oro har, herri-administrazioek boluntariotzako erakundeekiko eskainitako hurbilerraztasuna eta erabilgarritasuna hobetzea.

Adierazlea: Boluntariotzako erakundeetako zuzendariak herri-administrazioen aldetik izandako harrerari buruz azaltzen duten poztasun-mailaren gehikuntza.

Estandarra: %10eko hobekuntza

3.2.4. Boluntariotzaren esparruaren osotasunean

Boluntariotzaren esparruaren osotasunean ondoko emaitzak lortu nahi dira:

3.2.4.1. Euskal Autonomia Erkidegoko boluntariotzaren egoerari buruzko ezagutza enpiriko, analitiko eta kritikoa modu esanguratsuan gehitzea.

Adierazlea: Egindako eta jendaurrean aurkeztutako azterlan-kopurua.

Estandarra: 5

3.2.4.2. Euskal Autonomia Erkidegoan boluntariotzarekin erlazionatutako gairen bat barne hartzen duten gizarte-ikerketako prozesu edo baliabideen kopurua gehitzea.

Adierazlea: Gaia barne hartzen duten prozesu edo baliabide berriak.

Estandarra: 3

3.2.4.3. Boluntariotzari buruzko gizarte-eztabaida aberastea.

Adierazlea: Euskal Autonomia Erkidegoan boluntariotzaren gaia barne hartzen duten artikulua eta liburu argitaratuen kopuruaren gehikuntza.

Estandarra: %15

3.2.4.4. Erakundeei informazioa, dokumentazioa, aholkuak eta laguntza teknikoa emateko zerbitzuak garatzea (Legearen 12. artikulua adierazten duen eran).

Adierazlea: Euskal Autonomia Erkidegoan zerbitzu hauek eskaintzeko aurrekontu-gehikuntza.

Estandarra: %20

3.2.4.5. Erakundeen barruan eta kanpoan egindako boluntarioen prestakuntza prozesuak garatu eta hobetzea.

Adierazlea: Boluntarioek jasotako prestakuntzari buruz azaltzen duten poztasun-maila.

Estandarra: %70ekoa edo handiagoa

3.2.4.6. Erakundeetan boluntarioei harrera egin eta laguntzeaz arduratzen diren pertsonen prestakuntza-prozesuak garatu eta hobetzea.

Adierazlea: Arduradunek jasotako prestakuntzari buruz azaltzen duten poztasun-maila.

Estandarra: %70ekoa edo handiagoa

3.2.4.7. Boluntariotzaren esparruan dauden eragile ezberdinen edo agente ezberdinen arteko koordinazio-harremanak eta informazio-trukeak eta bestelako trukeak maila esanguratsuan sendotzea.

Adierazlea: Bi erakunde edo instituziotan edo gehiagotan dauden pertsonentzako ekitalditan izan den parte-hartzaileen guztizko kopuruaren

gehikuntza, Plana onetsi aurreko hiru urteak eta ondorengo hiru urteak konparatuz.

Estandarra: %10

3.2.4.8. Boluntariotzaren Euskal Kontseilua sendotzea, haren egitekoen betetzeari dagokionez.

Adierazlea: ondoko hauek batuz lortzen den guztizko kopurua:

- Boluntariotzaren beharrianak aztertzeke egin diren jarduerak.
- Aztertzeke aurkezten zaizkion arauzko xedapenen aurreproiektuak eta proiektuak.
- Herri-administrazioei egindako azterketa eta aholkularitza-jarduerak.
- Herri-administrazioetara bidalitako proposamenak edo ekimenak.
- Herri-administrazioen diruz laguntzeko jarduerari buruzko irizpide-adierazpenak.
- Herri-administrazioek boluntariotzari loturik egindako jarraipen eta ebaluazioari buruz jasotako informazioak.
- Euskal Autonomia Erkidegoko boluntariotzaren egoerari buruz egindako urteko txostenak.
- Onetsitako urteko memoriak.

Estandarra: 20.

3.2.4.9. Boluntariotzaren irudia kudeatzerakoan, itun estrategikoak egiterakoan eta, azken batean, boluntariotzaren alternatiba herritarrentzat gero eta erakargarriagoa bihurtzerakoan, helburuko gizatalderik garrantzitsuenak eta aldagai espezifikoko esanguratsuenak identifikatzea.

Adierazlea: Boluntariotzaren Euskal Kontseiluak gaiari buruzko ikerketa-prozesuak egiten dituzten agenteek egindako gizatalde eta aldagaien identifikazioari loturik azaltzen duen poztasun-maila.

Estandarra: %70ekoa edo handiagoa.

3.2.4.10. Euskal erakunde eta instituzioek harremanak dituzten Hegoaldeko herrialdeetako komunitate eta zonetan boluntariotza-erperientziak sendotzea eta zabaltzea.

Adierazlea: Boluntariotzaren esparruko eragileek hasitako eta zabaldutako esperientzia-kopurua.

Estandarra: 5.

3.3. Lortu nahi den inpaktua

Nolabait ere gure eragina izan dezaketen baina lortu nahi diren emaitza gisara proposatu ezin ditugun efektuak edo lorpenak aipatzerakoan "inpaktu" hitza erabiltzeak zer zentzu izan dezakeen galde daiteke. Gure ikuspuntutik, bi arrazoi daude hori egiteko:

- Alde batetik, jorratu nahi dugun ibilbidearen helmuga marrazten dugu, Plan honetan proposatzen den epearen barruan eta bertan konprometitu diren ekarpenekin, behintzat, helmuga horretara iristea oso zaila izango dela jakin badakigun arren.
- Bestalde, zenbait aldagai identifikatzen ditugu, Boluntariotzako Euskal Planaren inpaktuaren ebaluazioa egiterakoan horiei buruzko informazioa lortu beharko dugularik. Bestalde, Planaren hurrengo edizioetan aldagai horiek espero diren emaitza gisara barne hartu ahal izango dira.

Lehen Boluntariotzako Euskal Plan honen produkzio-baldintzak eta ezaugarriak kontuan izanik, aldagai, adierazle eta estandarren entsegu-izaerako hautespena egin behar izan dugu, batez ere aztergai dugun atal honetan. Nolanahi ere, lortu nahi den inpaktuaren ikuspegia eskaintzea (lehenago emaitzekin egin dugu bezala) bidezkotzat jo dugu, Plan honentzat baliagarria izango delako eta Planaren hurrengo edizioetan hobetuz ahal izango delako.

3.3.1. Boluntariotzan

Boluntariotzan ondoko inpaktua lortu nahi dugu:

3.3.1.1. Euskal Autonomia Erkidegoan lanean diharduten boluntario-kopurua gehitzea.

Adierazlea: Gehikuntza-ehunekoa (kasu honetan eta gainontzekoetan, Plana burutuko deneko hiru urteko aldia erabiliko da).

Estandarra: %5

3.3.1.2. Erakundeetan boluntarioen iraunaldia luzatzea.

Adierazlea: Iraunaldi-urteen batez bestekoaren gehikuntza-ehunekoa.

Estandarra: %5

3.3.1.3. Boluntarioek burutzen duten boluntario-jarduerari eskainitako batez besteko denbora luzatzea.

Adierazlea: Eskainitako orduen batez bestekoaren gehikuntza-ehunekoa.

Estandarra: %5

3.3.1.4. Boluntarioen artean sexua, adina, jatorria edo mugei loturiko aniztasuna eta heterogeneotasuna areagotzea.

Adierazlea: Euskal Autonomia Erkidegoko boluntariotzan aipatutako ezaugarrietako bakoitzari loturik gutxienez talde minoritario baten presentziaren gehikuntza-ehunekoa.

Estandarra: %5

3.3.1.5. Boluntarioek laguntza eskaintzen duteneko erakundeekin eta horien egitekoarekin duten konpromisoa handitzea, eta boluntario-jardunaren instrumentalizazioa murriztea (helburu desegokietarako erabiltzea).

Adierazlea: Erakundeetako arduradunek boluntarioen konpromisoari buruz azaltzen duten poztasun-mailaren gehikuntza-ehunekoa.

Estandarra: %5

3.3.2. Erakundeetan

Boluntariotzako erakundeetan ondoko inpaktua lortu nahi da:

3.3.2.1. Boluntariotza eraldatzailearen jarduera-kopurua gehitzea (Legearen 12. artikuluan proposatzen denari jarraiki).

Adierazlea: Boluntariotza eraldatzailearen jarduerak egiten dituztela adierazten duen erakunde-kopuruaren gehikuntza-ehunekoa.

Estandarra: %5

3.3.2.2. Erakundeetako erabakiak hartzeko eta haiek ordezkatzeko prozesuetan boluntarioen parte-hartzea handitzea.

Adierazlea: Erakundeetako zuzendaritza-erantzukizunetan boluntarioen presentziaren ehunekoaren gehikuntza.

Estandarra: %5

3.3.2.3. Boluntarioak dituzten erakundeak instituzionalki (autonomian eta iraunkortasunean) sendotzea.

Adierazlea: Erakundeetako zuzendariak autonomia eta iraunkortasun instituzionalari buruz azaltzen duten poztasun-mailaren gehikuntza.

Estandarra: %5

3.3.2.4. Boluntarioak dituzten erakundeetan diru eta baliabide zuzkidura hobetzea.

Adierazlea: Erakundeetako zuzendariak jasotzen den zuzkidura ekonomiko eta materialari buruz azaltzen duten poztasun-mailaren gehikuntza.

Estandarra: %5

3.3.2.5. Praktika egokiak gehitzea, eta praktika txarrak eta, bereziki, boluntariotza soldatapeko lanaren ordezeko gisa erabiltzea edota horien hurrenez hurreneko gune eta erantzukizunetan esku-hartze publikoa murriztea.

Adierazlea: Erakundeek boluntariotzaren erabileran egindako praktikei dagokienez boluntarioek azaltzen duten poztasun-mailaren gehikuntza ehunekotan.

Estandarra: %5

3.3.2.6. Erakundeen barruan generoaren hesia txikitzea.

Adierazlea: Talde bakoitzak ordezkari-tza murrizta duen jardueretan emakumeen eta gizonen ehunekoaren gehikuntza.

Estandarra: %10

3.3.2.7. Gizartean parte hartzeko eta eskubideak erabiltzeko zailtasunak aurkitzen dituzten talde ezberdinek jasaten dituzten diskriminazioak erakundeen barruan murriztea.

Adierazlea: Boluntariotzako erakundeetan zuzendaritza-erantzukizunak dituzten talde horietako pertsonen ehunekoaren gehikuntza.

Estandarra: %10

3.3.2.8. Giza baliabide boluntarioen eta, bereziki, boluntarioen barne hartzeari eta laguntzeari dagokien alorraren kudeaketan praktika hobekak egitea.

Adierazlea: Boluntarioek erakundeen hurbilerraztasunari buruz eta bertan egiten zaien arretari buruz azaltzen duten poztasun-mailaren ehunekoaren gehikuntza.

Estandarra: %5

3.3.2.9. Erakundeek pixkanaka hesi digitala gainditzea eta, beraz, informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak gero eta gehiago erabiltzea.

Adierazlea: Informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrien tresnak erabiltzen dituzten erakundeen jarduera-kopuruaren ehunekoaren gehikuntza.

Estandarra: %100

3.3.3. Herri-administrazioetan

Herri-administrazioetan ondoko inpaktua lortu nahi da:

3.3.3.1. Herri-administrazioek boluntariotzari eta, oro har, herritarrei egindako zerbitzuaren hurbiltasuna eta hobekuntza areagotzea.

Adierazlea: Boluntarioek herri-administrazioetatik jasotako arretari buruz azaltzen duten poztasun-maila.

Estandarra: %70

3.3.3.2. Boluntario-lanaren garapena errazten duten lege, lan eta zerga-esparruko aldaketen kopurua handitzea (Legearen 12. artikulua adierazten duen eran).

Adierazlea: Plana onetsi aurreko hiru urteen eta ondorengo hiru urteen artean egindako aldaketa-kopuruaren ehunekoaren gehikuntza.

Estandarra: %5

3.3.4. Boluntariotzaren esparruaren osotasunean

Boluntariotzaren esparruaren osotasunean ondoko inpaktua lortu nahi da:

3.3.4.1. Enpresek bertako langileen boluntario-jarduna errazteko xedez lanaldia murriztu edo egokitzeko jarritako neurriak gehitzea (Legearen 12. artikulua adierazten duen eran) eta, oro har, enpresek boluntariotzari emandako laguntza gehitzea.

Adierazlea: Plana onetsi aurreko hiru urteen eta ondorengo hiru urteen artean lanaldia murriztu edo egokitzeko esperientzia-kopuruaren ehunekoaren gehikuntza.

Estandarra: %5

3.3.4.2. Boluntariotzak ondoren zerrendatzen diren talde, alderdi edo erakunde garrantzitsuen aurrean duen irudi publikoa (hau da, garrantzia eta balioa) eta onarpen soziala sakondu, aberastu eta hobetzea: sindikatuak, unibertsitateak eta hezkuntza erakundeak, komunikabideak, enpresa-erakundeak, alderdi politikoak, mugimendu sozialak eta beste zenbait erakunde eta instituzio.

Adierazlea: Gizarte-eragileek boluntariotzari buruz egindako balorazio positiboaren ehunekoaren gehikuntza.

Estandarra: %5

4. Ekintza-lerroak

Boluntariotzako Euskal Planean lortu nahi diren helburuak proposatu ondoren, nahi diren lorpen edo eragin horiek lortzeko aukera emango duten ekintza-lerroak aurkeztu behar dira. (ikus 3. eranskina)

Boluntariotzako Euskal Planaren laugarren eta azken atal honen helburua, une honetan lehen aipatutako boluntariotzaren esparruaren barruan oso konprometituri dauden

agente eta eragileetariko bakoitzarentzat proposamenak egitea da. Horrek ez du esan nahi Planaren hurrengo bertsioetan ez direnik beste zenbait eragile edo agente identifikatuko, ez eta horien ekarpenak planteatuko ez direnik ere. Hemen biltzen diren proposamenen esparruan, agente edo eragile horietako bakoitzak Planak harengandik espero duen ekarpen espezifikoak egiteko aukera emango dieten politikak, estrategiak, prozesuak eta jarduketak diseinatu eta burutuko ditu.

Plan honen helburua, boluntariotzaren esparruan eragina duten eta normalki Boluntariotzaren Euskal Kontseiluan ordezkaturik dauden agente ezberdinen eta eragile ezberdinen arteko adostasun politiko edo estrategiko orokorraren adierazpena izatea da. Horregatik, eragile horietako bakoitzari edo agente horietako bakoitzari eskatzen zaizkion egitekoak edo rolak era ordenatu eta koordinatuan banatzea du helburu.

Argi dagoenez gero, eragile edo agente horiek dagoeneko gauzatzen ari diren jardueren onarpena eta balorazioa da abiapuntua, eta horien guztien adostasunarekin eta laguntzarekin beste urrats bat egin nahi da, haiek egiten dituzten ahaleginak hobeto banatzeko eta ahalik eta sinergiarik handiena lortzeko.

Helburuen atalean adierazleak eta estandarrak lortu nahi diren emaitzekin eta inpaktuarekin parekatu diren bezala, une honetan Planaren burutzapena ebaluatzea ahalbidetuko duten prozesuko adierazleak eta estandarrak proposatuko ditugu. Kasu honetan ere proposatzen ditugun (beti bat ekintza-lerro bakoitzeko) adierazle eta estandarren entsegu-izaera azpimarratu nahi dugu, eta ebaluazioa egiten dutenek adierazle-sorta osatu behar dutela gogorarazi nahi dugu, bereziki ondokoa egin beharko dutelarik:

- Prozesuen hartzaile eta protagonisten poztasuna islatzen duten adierazleak ahalik eta gehien barne hartzea.
- Emandako datuak beste aldagai batzuen arabera (adibidez, sexua edo adina) bereiztea, hala dagokion bakoitzean, horiek ez badira kontuan hartzen informazio balioduna ezkutuan gera daitekeelako.

Atal hau zazpi zatitan banatuta dago, eta Boluntariotzako Euskal Planak jarduketa proposamenak egiten dizkien eragile edo agente bakoitzari zuzenduta daude:

- Boluntarioak dituzten erakundeak eta hauen sareak.
- Boluntariotzako agentziak.
- Boluntariotzaren Euskal Kontseilua.
- Udalak eta hauen elkarteak.
- Foru Aldundiak.
- Eusko Jaurlaritza.
- Beste zenbait eragile edo agente garrantzitsu.

Argi eta garbi utzi behar da Plan honetan proposatzen diren ekintzalerroek ez dutela agente horietako bakoitzak boluntariotzari loturik egiten duen guztia agortu nahi. Eragile bakoitzari zenbait jarduketa-orientabide ematea du helburu, guztion ahaleginarekin proposatu diren helburuak lortzea ahalbidetuko dutelarik.

4.1. Boluntarioak dituzten erakundeak eta hauen sareak

Boluntarioak dituzten erakunde eta sareentzat, ondoko lehentasunezko ekintzalerroak proposatzen dira:

4.1.1. Boluntariotzako Euskal Plana aztertu eta hedatzea, testuinguru jakin bati egokitutako modu pedagogiko eta parte-hartzailean.

Adierazlea: Boluntariotzako Euskal Planari buruzko lan-ekintzen kopurua haren aplikazioaren lehenengo urtean.

Estandarra: 2ko batez bestekoa agente edo eragile bakoitzeko.

4.1.2. Erakunde bakoitzean edo erakunde-sare bakoitzean boluntarioak erakarri, barne hartu eta, oro har, laguntzeko ekintza espezifikoak barne hartzen dituzten giza baliabide boluntarioen kudeaketa-prozesuak diseinatzea (edo berrikustea, lehendik diseinatuta baldin badaude), burutzea eta ebaluatzea, ateratako ondorioen berri emanez eta prozesu horien arduradunak identifikatuz.

Adierazlea: Boluntarioen laguntzerako erantzukizunak esleituta dituen erakunde-kopuruaren gehikuntza.

Estandarra: %50

4.1.3. Erakunde bakoitzean edo erakunde-sare bakoitzean boluntarioen premien azterketan oinarrituriko prestakuntza-prozesuak diseinatzea (edo berrikustea, lehendik diseinatuta baldin badaude), burutzea eta ebaluatzea. Prozesu horiek, alde batetik, erakundearen ekintza eta hausnarketa-dinamikaren aprobeixamendua (prestakuntzari loturik) barne hartuko dute, eta bestetik, barneko prestakuntza-ekintzen burutzapena eta kanpoko prestakuntza-ekintzen parte-hartzea (lehentasun gisara, erakundearen lan egiten duten pertsona guztiei zuzendutakoak eta boluntarioei bereziki zuzendutakoak elkartuz).

4.1.4. Erakundeetan edo erakunde-sareetan Boluntariotzari buruzko Legearen 8.4.a artikulua eskatzen duen boluntarioaren estatutua lantzeko edo berrikusteko prozesuak garatzea.

Adierazlea: Boluntarioaren estatutua lantzen edo berrikusten duen erakunde-kopurua.

Estandarra: 250.

4.1.5. Boluntarioek lan egiten duteneko erakundearen hausnarketa eta erabakietan parte hartzeko gune edo agente formal eta operatiboak sortzea edo, hala dagokionean, indartzea, arreta berezia eskainiz boluntariotzaren balioak indartuko dituen ekintza eta nortasunaren arteko orekari.

Adierazlea: Parte hartzeko guneak formalizatzen eta abian jartzen dituen erakunde-kopurua.

Estandarra: 50

4.1.6. Erakundeetan genero-ikuspegia barne hartzearen alorrean esperientzia berritzaileak egitea eta plazaratzea.

Adierazlea: Plazaratutako esperientzia-kopurua.

Estandarra: 10.

4.1.7. Boluntariotzako Erakundeen Errolda Orokorrean sartzeko beharrezkoak diren tramiteak egitea.

Adierazlea: Erroldan sartzeko beharrezkoak diren tramiteak egiten ari den erakunde-kopurua.

Estandarra: 500.

4.1.8. Erakunde eta erakunde-sareen eta gizarte-komunikabide, enpresa-erakunde eta sindikatuen artean elkarrizketa-ekintzak burutu, ebaluatu, hobetu eta plazaratzea, instituzio horiek boluntariotzari buruz duten irudiarengan eta boluntariotzarekiko duten portaerarengan eragiteko xedez.

Adierazlea: Egindako eta komunikatutako elkarrizketa-ekintzen kopurua.

Estandarra: 150.

4.2. Boluntariotzako agentziak

Boluntariotzako agentzientzat, ondoko lehentasunezko ekintza-lerroak proposatzen dira:

4.2.1. Boluntariotzako Euskal Plana aztertu eta hedatzea, testuinguru jakin bati egokitutako modu pedagogiko eta parte-hartze handikoan.

Adierazlea: Boluntariotzako Euskal Planari buruzko lan-ekintzen kopurua haren aplikazioaren lehenengo urtean.

Estandarra: 2ko batez bestekoa agente edo eragile bakoitzeko.

4.2.2. Boluntariotzari buruzko Legearen 12.e artikulua aipatzen dituen eta agentziak jadanik gauzatzen ari diren informazio, dokumentazio, aholkularitza eta laguntza teknikorako ekintzak berrikusi, doitu, burutu, ebaluatu, hobetu, sistematizatu eta plazaratzea.

Adierazlea: Agentziek informazio, dokumentazio, aholkularitza eta laguntza teknikorako egindako zerbitzuekin erlazionaturik dauden eta dokumentu bidez egiaztatu den hobekuntza-kopurua.

Estandarra: 30.

4.2.3. Boluntarioei bereziki zuzendutako prestakuntza-eskaintzak prestatu, burutu eta ebaluatzea (ateratako ondorioen berri emanez). Eskaintza horiek, erakundeek edo beste zenbait prestakuntza-hornitzailek burutzen dituztenen osagarri izango dira.

Adierazlea: Agentziek eskainitako edo proposatutako prestakuntza-ekintzetan urte osoan igarotako ordu-kopurua.

Estandarra: 300 edo gehiago.

4.2.4. Boluntarioen laguntzeaz eta, oro har, giza baliabide boluntarioak kudeatzeaz arduratzen diren pertsonen bereziki zuzendutako prestakuntza-eskaintzak prestatu, burutu eta ebaluatzea (ateratako ondorioen berri emanez). Eskaintza horiek, erakundeek edo beste zenbait prestakuntza-hornitzailek burutzen dituztenen osagarri izango dira.

Adierazlea: Agentziek eskainitako edo proposatutako prestakuntza-ekintzetan urte osoan igarotako ordu-kopurua.

Estandarra: 150 edo gehiago.

4.2.5. Boluntariotzaren alorrean praktika egokiak eta, bereziki, praktika berritzaileak zabaltzeko ekintzak sistematikoki burutzea.

Adierazlea: Praktika egokiak eta praktika berritzaileak zabaltzeko ekintza-kopurua.

Estandarra: 10 edo gehiago.

4.2.6. Boluntario-jardunaren estandar etikoak garatu eta zabaltzea.

Adierazlea: Boluntario-jardunerako estandar etikoen garapen eta zabalkuntza-ekintzen kopurua, publikoki ezagunak direla eta horietan bi erakundek edo gehiagok parte hartzen dutela.

Estandarra: 10.

4.2.7. Agentzien artean eta, oro har, boluntariotzaren esparruko eragile edo agente ezberdinen artean hausnarketa eta eztabaidarako harreman eta truke-dinamikak sendotzea, Euskal Autonomia Erkidegoaren barruan eta kanpoan.

Adierazlea: Bi erakundek edo gehiagok parte hartzen duten jardunaldien edo, oro har, boluntariotzarekin erlazionatutako jardueren ondorioz egindako argitalpen-kopurua.

Estandarra: 10.

4.2.8. Harremanetan daudeneko boluntariotzako sektoreen dibertsifikazioa helburu duten ekintzak.

Adierazlea: Plana burutzen hasten den unean handiena den boluntariotza sektorean barne hartuta ez dauden erakundeei zuzendutako komunikazio-kopuruaren gehikuntza.

Estandarra: %100

4.2.9. Agentziek boluntariotzaren esparruan burutzen dituzten bitartekotzalanak egituratu eta hobetzea.

Adierazlea: Agentziek burutzen dituzten bitartekotza-prozesuetan sartutako eta dokumentu bidez egiaztaturiko hobekuntzak.

Estandarra: 5.

4.3. Boluntariotzaren Euskal Kontseilua

Boluntariotzaren Euskal Kontseiluarentzat, ondoko lehentasunezko ekintzalerroak proposatzen dira:

4.3.1. Boluntariotzako Euskal Plana aztertu eta hedatzea, testuinguru jakin bati egokitutako modu pedagogiko eta parte-hartze handikoan.

Adierazlea: Boluntariotzako Euskal Planari buruzko lan-ekintzen kopurua haren aplikazioaren lehenengo urtean.

Estandarra: 2ko batez bestekoa agente edo eragile bakoitzeko.

4.3.2. Boluntariotzaren Euskal Kontseiluak bere jardueraren plangintza, burutzapena, ebaluazioa eta zabalkundea egitea, Boluntariotzari buruzko Legean ezarritakoaren arabera.

Adierazlea: Boluntariotzaren Euskal Kontseiluak egindako jardueren eta lortutako emaitzen zabalkunde-ekintzak.

Estandarra: 5.

4.3.3. Boluntariotzaren esparruan barne hartuta dauden agente ezberdinekin sistematikoki elkarrizketan jardutea.

Adierazlea: Boluntariotzaren Euskal Kontseiluarekin batera jarduten duten erakunde publiko eta pribatuen kopurua.

Estandarra: 20.

4.3.4. Boluntariotzako Euskal Planaren burutzapenaren etengabeko jarraipena egitea, eta prozesu, emaitza eta inpaktuari buruzko balorazioak egitea.

Adierazlea: Boluntariotzako Euskal Planaren burutzapenaren jarraipenerako urtean zehar egindako saio-kopurua.

Estandarra: 2.

4.3.5. Boluntariotzaren Euskal Kontseiluaren barne-hartzean, egituratzean, funtzionamenduan eta harremanetan sartu beharreko aldaketei buruzko hausnarketa egitea.

Adierazlea: Hausnarketa horretarako egindako saioak.

Estandarra: 2

4.3.6. Kontseiluaren berrikuntza-prozesua dinamizatzea.

Adierazlea: Boluntariotzaren Euskal Kontseilua berritzera zuzendutako ekintza kopurua.

Estandarra: 5.

4.4. Udalak eta hauen elkarteak

Udalentzat eta hauen elkarteentzat ondoko lehentasunezko ekintza-lerroak proposatzen dira:

4.4.1. Boluntariotzako Euskal Plana aztertu eta hedatzea, testuinguru jakin bati egokitutako modu pedagogiko eta parte-hartze handikoan.

Adierazlea: Boluntariotzako Euskal Planari buruzko lan-ekintzen kopurua haren aplikazioaren lehenengo urtean.

Estandarra: 2ko batez bestekoa agente edo eragile bakoitzeko.

4.4.2. Boluntariotzari laguntzeko (adibidez urteroko) planak, programak edo proiektuak diseinatu (dagozkien aldez aurreko azterlanekin), burutu eta ebaluatzea (emaitzen berri emanez, tokiko komunikabideei ere).

Adierazlea: Onetsi, burutu eta ebaluatutako plan, programa edo proiektuen kopurua.

Estandarra: 30.

4.4.3. Politika, plan, programa edo proiektuetan boluntariotzak zeharkako elementu gisa duen presentzia mantendu, barne hartu edo hobetzea (eta zabaltzea).

Adierazlea: Politika, plan, programa edo proiektuetan boluntariotzaren zeharkako elementu-izaerarekin erlazionatutako alderdi berriak sartzen dituzten Udalen kopurua.

Estandarra: 15.

4.4.4. Toki-eremuan boluntariotza duten erakunde ezberdinen arteko elkarreragina bultzatzen duten ekintzak diseinatu, burutu, ebaluatu eta zabaltzea.

Adierazlea: Ekintza-kopurua.

Estandarra: 30.

4.4.5. Boluntario-jarduera garatzeko azpiegitura eta material-ekipamenduen ekarpena egitea eta horien eskaintza hobetzea.

Adierazlea: Udalek eta hauen elkarteek boluntariotzaren erakundeei eskainitako azpiegitura berriak.

Estandarra: 15.

4.4.5. Toki edo eskualde-mailan herritarren parte-hartzerako prozesuetan boluntariotzaren erakundeei eskaintzen zaizkien gune eta prozesuak egituratzea eta hobetzea.

Adierazlea: Herritarren parte-hartzerako guneetan egindako aldaketei buruz zabaldutako esperientziak.

Estandarra: 15.

4.5. Foru Aldundiak

Foru Aldundientzat ondoko lehentasunezko ekintza-lerroak proposatzen dira:

4.5.1. Boluntariotzako Euskal Plana aztertu eta hedatzea, testuinguru jakin bati egokitutako modu pedagogiko eta parte-hartze handikoan.

Adierazlea: Boluntariotzako Euskal Planari buruzko lan-ekintzen kopurua haren aplikazioaren lehenengo urtean.

Estandarra: 2ko batez bestekoa agente edo eragile bakoitzeko.

4.5.2. Boluntariotzari laguntzeko (adibidez urteroko) planak, programak edo proiektuak diseinatu (dagozkien alde aurreko azterlanekin), burutu eta ebaluatzea (emaitzen berri emanek, eskualdeko komunikabideei ere), arduradunak izendatuz.

Adierazlea: Onetsi, burutu eta ebaluatutako plan, programa edo proiektuen kopurua.

Estandarra: 6 (hiru Foru Aldundiak batuz).

4.5.3. Boluntariotzaren eskualde-agentzien funtzionamendua, garapena eta sendotzea ahalbidetzen duten finantzaketa egonkorra (batez ere hitzarmenen bitartez) eta beste zenbait laguntza-mota (eta ikuskaritza-mota) eskaintzea.

Adierazlea: Boluntariotzako agentziek Foru Aldundien bitartez jasotako laguntzari buruz azaldutako poztasun-maila.

Estandarra: %70ekoa edo handiagoa.

4.5.4. Euskal Autonomia Erkidegoko hiru Foru Aldundietako departamentu ezberdinen politika, plan, programa edo proiektuetan boluntariotzak zeharkako elementu gisa duen presentzia mantendu, barne hartu edo hobetzea (eta zabaltzea).

Adierazlea: Politika, plan, programa edo proiektuetan boluntariotzaren zeharkako elementu-izaerarekin erlazionatutako alderdi berriak sartzen dituzten Foru Departamentuen kopurua.

Estandarra: 10.

4.5.5. Boluntarioei bereziki zuzendutako eta lurralde-eremuan egindako prestakuntza-ekintzak burutzeko finantzaketa egonkorra eta beste zenbait laguntza-mota (eta ikuskaritza-mota) eskaintzea.

Adierazlea: Finantzatutako prestakuntza-ekintzen kopurua.

Estandarra: 10 (hiru Foru Aldundiak batuz).

4.5.6. Boluntarioak dituzten erakundeek egiten duten giza baliabide boluntarioen kudeaketa erraztu eta egituratzeko ekintzak diseinatu, burutu eta ebaluatzea.

Adierazlea. Ekintza-kopurua.

Estandarra: 5.

4.5.7. Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde ezberdinetako enpresa-erakundeekin boluntariotzaren gaiari buruzko truke eta elkarreraginerako harremanak ezarri eta mantentzea.

Adierazlea: Foru Aldundien eta enpresa-erakundeen ordezkariak egindako bilerak.

Estandarra: 10.

4.5.8. Boluntario-jarduera garatzeko azpiegitura eta material-ekipamenduen ekarpena egitea eta horien eskaintza hobetzea.

Adierazlea: Foru Aldundiek boluntariotzaren erakundeei eskainitako azpiegitura berriak.

Estandarra: 10.

4.6. Eusko Jaurlaritza

Eusko Jaurlaritzarentzat ondoko lehentasunezko ekintza-lerroak proposatzen dira:

4.6.1. Boluntariotzako Euskal Plana aztertu eta hedatzea, testuinguru jakin bati egokitutako modu pedagogiko eta parte-hartze handikoan.

Adierazlea: Boluntariotzako Euskal Planari buruzko lan-ekintzen kopurua haren aplikazioaren lehenengo urtean.

Estandarra: 2ko batez bestekoa agente edo eragile bakoitzeko.

4.6.2. Boluntariotzako Legean aurreikusitako boluntariotza sustatzeko neurriak garatu eta burutzea.

Adierazlea: Arauak garatzeko gauzatutako ekimenak.

Estandarra: 2

4.6.3. Boluntariotzari laguntzeko (adibidez urteroko) planak, programak edo proiektuak diseinatu (dagozkien alde aurreko azterlanekin), burutu eta ebaluatzea (emaitzen berri emanaz, erkidegoko komunikabideei ere), arduradunak izendatuz.

Adierazlea: Onetsi, burutu eta ebaluatutako plan, programa edo proiektuen kopurua.

Estandarra: 2.

4.6.4. Euskal Autonomia Erkidegoko boluntariotzaren errealitateari eta egiten diren esku-hartze ezberdinek errealitate horrengan sortzen dituzten eraginei buruzko ikerketan bat (sistematikoa, partaidetzakoa eta genero-ikuspegia barne hartzen duena) egitea, bai eta emaitzen berri ematea ere.

Adierazlea: Boluntariotzako Euskal Kontseiluak Eusko Jaurlaritzak garatzen dituen ikerketa-prozesuei buruz azaldutako poztasun-maila.

Estandarra: %70ekoa edo handiagoa.

4.6.5. Eusko Jaurlaritzak boluntariotzaren egoera aztertzeko martxan dituen gizarte ikerketako baliabideak erabili ahal izateko elkarrizketak eta lanak egitea.

Adierazlea: Ikerketa-baliabideek boluntariotzari loturiko alderdiak barne hartzeko xedez departamentuen artean egindako bilera eta lanen urteko ordu-kopurua.

Estandarra: 40.

4.6.6. Lurralde-agentziei finantzaketa egonkorra (batez ere hitzarmenen bitartez) eta beste zenbait laguntza-mota (eta ikuskaritza-mota) eskaintzea, Boluntariotzari buruzko Legearen 9. artikuluan Eusko Jaurlaritzari emandako ondoko eskumenak gauzatzeko: Autonomia Erkidegoan garatzen diren baliabideei buruzko katalogo publiko bat egitea; lehendik dauden fondoak koordinatuko dituzten boluntariotzari buruzko agiri-fondoa eta datu-basea sortzea; erakundeei eskatzen dituzten aholkularitza teknikoa eta lankidetzazehatza eskaintzea.

Adierazlea: Sinatutako hitzarmenak.

Estandarra: 3.

4.6.7. Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateekin harremanak finkatu eta sendotzea, gizarte-segmentu edo sektore ezberdinetan boluntariotza-jardunaren errealitateari eta gaitasunei buruzko doktorego-tesien eta bestelako ikerketen

burutzapena eta zabalkundea bultzatzeko eta, oro har, boluntariotzaren alorrean unibertsitateen lankidetzak sendotzeko.

Adierazlea: Eusko Jaurlaritzaren eta unibertsitateen ordezkariak egindako bilerak.

Estandarra: 10.

4.6.8. Euskal Autonomia Erkidegoko sindikatuarekin boluntariotzaren gaiari buruzko truke eta elkarreraginerako harremanak ezarri eta mantentzea (enpresaren munduan boluntariotza sendotzeko helburuarekin, besteak beste).

Adierazlea: Eusko Jaurlaritzaren eta sindikatuen ordezkariak egindako bilerak.

Estandarra: 10.

4.6.9. Eusko Jaurlaritzako sail ezberdinen politika, plan, programa edo proiektuetan boluntariotzak zeharkako elementu gisa duen presentzia mantendu, barne hartu edo hobetzea (eta zabaltzea).

Adierazlea: Politika, plan, programa edo proiektuetan boluntariotzaren zeharkako elementu-izaerarekin erlazionatutako alderdi berriak sartzen dituzten boluntariotzaren alorrean eskumena duen sailaz bestelako sailen kopurua.

Estandarra: 4.

4.6.10. Finantzaketa egonkorra eta beste zenbait laguntza-mota (eta ikuskaritza-mota) eskaintzea, bereziki boluntarioei zuzendutako eta Euskal Autonomia Erkidego osoan egiten diren prestakuntza-ekintzak burutzeko.

Adierazlea: Finantzatu diren prestakuntza-ekintzen kopurua.

Estandarra: 10.

4.6.11. Boluntarioak dituzten erakundeek genero-hesia gainditu ahal izateko ekintzak diseinatu, burutu eta ebaluatzea.

Adierazlea. Ekintza-kopurua.

Estandarra: 5.

4.6.12. Boluntarioak dituzten erakundeek hesi digitala gainditu ahal izateko ekintzak diseinatu, burutu eta ebaluatzea.

Adierazlea: Ekintza-kopurua.

Estandarra: 5.

4.6.13. Boluntariotzari buruzko Legearen eta, bereziki, Boluntariotzako Erakundeen Errolda Orokorren existentziaren zabalkunderako (boluntarioei, erakundeei, instituzioei eta, oro har, gizarteari zuzenduta) eta erakundeak errolda horretan barne har daitezen bultzatzeko ekintzak burutzea.

Adierazlea. Ekintza-kopurua.

Estandarra: 5.

4.6.14. Boluntariotzako Erakundeen Errolda Orokorren arduradunen eta fundazioen eta elkarten erregistroen arduradunen artean funtzionamendu-akordioak ezartzea.

Adierazlea. Dokumentu-euskarriarekin ezarritako protokoloa.

Estandarra: 1.

4.6.15. Boluntariotzaren Euskal Kontseiluaren funtzionamendurako eta hura indartzeko finantzaketa eta bestelako laguntzak ematea.

Adierazlea: Boluntariotzaren Euskal Kontseiluak jasotako laguntzari buruz azaltzen duen poztasun-maila.

Estandarra: %70ekoa edo handiagoa

4.6.16. Boluntariotzaren Euskal Kontseiluarekin lankidetzan, boluntariotzaren egoerari eta lehen Boluntariotzako Euskal Planaren eraginei buruzko ebaluazio etengabea, osatua eta parte-hartze handikoa egitea (hala pertsona boluntarioen nola boluntario-ekintzaren hartzaile diren pertsonen ekarpenekin), bigarren Plan bat egiteko oinarriak finkatuko dituelarik.

Adierazlea: Ebidentzia enpiriko nahikoa eta egokia ematen duten eta Planean barne hartuta dauden adierazleen ehunekoak.

Estandarra: %70ekoa edo handiagoa

4.6.17. Boluntario-jarduera garatzeko azpiegitura eta material-ekipamenduen ekarpena egitea eta horien eskaintza hobetzea.

Adierazlea: Eusko Jaurlaritzak boluntariotzaren erakundeei eskainitako azpiegitura berriak.

Estandarra: 5.

4.7. Beste zenbait eragile edo agente

Boluntariotzaren esparruan jadanik laguntza garrantzitsua eskaintzen ari diren Aurrezki Kutxak eta Fundazioak bezalako erakundeentzat, ondoko lehentasunezko ekintza-lerroak proposatzen dira:

4.7.1. Boluntariotzako Euskal Plana aztertu eta hedatzea, testuinguru jakin bati egokitutako modu pedagogiko eta parte-hartze handikoan.

Adierazlea: Boluntariotzako Euskal Planari buruzko lan-ekintzen kopurua haren aplikazioaren lehenengo urtean.

Estandarra: 2ko batez bestekoa agente edo eragile bakoitzeko.

4.7.2. Boluntariotzari laguntzeko (adibidez urteroko) planak, programak edo proiektuak diseinatu (dagozkien aldez aurreko azterlanekin), burutu eta ebaluatzea (emaitzen berri emanaz).

Adierazlea: Onetsi, burutu eta ebaluatutako plan, programa edo proiektuen kopurua.

Estandarra: 5.

4.7.3. Aurrezki Kutxak eta Fundazioak bezalako erakundeek boluntariotzako agentzia eta erakundeei finantzaketa eta bestelako laguntzak ematea.

Adierazlea: Boluntariotzaren Euskal Kontseiluak Aurrezki Kutxek eta Fundazioek emandako laguntzari buruz azaltzen duen poztasun-maila.

Estandarra: %70ekoa edo handiagoa.


4.7.4. Boluntariotzari laguntzen dioten Aurrezki Kutxa eta Fundazioen eta boluntariotzaren esparruan diharduten beste zenbait agenteren artean elkarrizketabide normalak ezartzea.

Adierazlea: Hasitako elkarrizketa-dinamika berrien kopurua.

Estandarra: 10.

Donostia-San Sebastián, 2002ko abenduaren 9an

1. eranskina / Boluntariotzaren esparrua



2. eranskina / Helburuak

	2. Espero diren emaitzak	3. Espero den inpaktua
1. Boluntariotzan	<ol style="list-style-type: none"> 1. Eskubideak eta betebeharrak ezagutzea. 2. Diskurtso propioa. 3. Gaitasunak hobetzea. 	<ol style="list-style-type: none"> 1. Boluntario-kopurua. 2. Egonaldia edo iraunaldia. 3. Dedikazio-denbora. 4. Aniztasuna. 5. Konpromisoa.
2. Erakundeetan	<ol style="list-style-type: none"> 1. Berrikuntza 2. Estandar etikoak. 3. Autoidentifikazioa. 4. Lankidetzazabalagoa. 5. EAEaz gaindikoko sareak. 6. Tokiko sareak. 7. Sareak sendotzea. 8. Erroldan dauden erakundeak gehitzea. 9. Sektore-heterogeneotasuna. 10. Estatutuaren kalitatea. 	<ol style="list-style-type: none"> 1. Izaera eraldatzailea. 2. Boluntarioen parte-hartzea. 3. Sendotze instituzionala. 4. Diru eta material zuzkidura. 5. Praktika egokiak. 6. Generoa. 7. Diskriminazioak. 8. Giza baliabideen kudeaketa. 9. Hesi digitala.
3. Herri Administrazioetan	<ol style="list-style-type: none"> 1. Zeharkako elementua. 2. Zuzeneko politikak. 3. Praktika egokiak eta egonkortasuna. 4. Helgarritasuna eta erabilgarritasuna. 	<ol style="list-style-type: none"> 1. Ezagutza eta zerbitzu hobeak. 2. Aldaketak legeen, lanaren eta zergen alorrean.
4. Boluntariotzaren esparru osoan	<ol style="list-style-type: none"> 1. Ezagutza. 2. Gizartea ikertzeko tresnak. 3. Eztabaida soziala. 4. Informazioa eta laguntza-zerbitzuak. 5. Boluntarioen prestakuntza. 6. Arduradunen prestakuntza. 7. Trukeak. 8. Kontseilua sendotzea. 9. Hartzaileak eta aldagaiak identifikatzea. 10. Boluntariotza hegoaldean. 	<ol style="list-style-type: none"> 1. Enpresen laguntza. 2. Irudia.

3. eranskina / Ekintza-ardatzak

Ondoren, zenbait ekintza-ardatz aurkezten dira, eta bertan Planaren 4. idatz-zatian aurkeztutako eragile edo agente bakoitzaren ekintza-lerroak ezartzen dira:

	Eragileak edo agenteak						
	1	2	3	4	5	6	7
Ardatzak	Antolakun- deak	Agentziak	Boluntario- tzako Euskal Kontseilua	Udalak	Foru Aldundiak	Eusko Jauriaritza	Beste agente batzuk
Plangintza	1,2,3	1,2,3,4	1,2	1,2,3,4	1,2,4,6	1,2,3,9, 11,12	1,2
Prestakuntza	3	3,4			5	10	
Giza baliabideak kudeatzea	2				6		
Informazioa eta laguntza (teknikoa)		2			3	6,12	
Parte-hartzea	4,5		2,5,6	6		4,16	
Elkarrizketa eta trukea	8	7,8,9	2,3,5,6	4,6	3,7	5,7,8,14 ,15	4
Berrikuntza eta praktika egokiak (generoa, etika)	6	5,6				4,11	
Finantzaketa eta babesak				5	3,5,8	6,10,15, 17	3
Erregistroa	7					13,14	
Hedapena	1,2,6,8	1,2,3,4,5 ,6	1,2	1,2,3,4	1,2,4	1,3,9,13 ,14	1,2
Ikerketa						4,5,7	
Ebaluazioa	2,3,8	2,3,4	2,4,5	2,3,4	2,4,6	3,9,11 ,12,16	2

AURKIBIDEA

1. Aurkezpena	1
2. Aurrekariak	1
2.1. Planaren xedea eta norainokoa	1
2.2. Erreferentziazko kontzeptuak	3
2.3. Boluntariotzaren esparrua	5
2.4. Euskal Autonomia Erkidegoko boluntariotzaren egoeraren diagnostikoa	7
2.4.1. Indarguneak	8
2.4.2. Ahuleziak	10
2.4.3. Aukerak	13
2.4.4. Arriskuak	14
2.5. Balioak	17
3. Helburuak	18
3.1. Helburu orokorrak	20
3.2. Espero diren emaitzak	20
3.2.1. Boluntariotzan	21
3.2.2. Erakundeetan	22
3.2.3. Herri Administrazioetan	24
3.2.4. Boluntariotzaren esparruaren osotasunean	25
3.3. Lortu nahi den inpaktua	28
3.3.1. Boluntariotzan	28
3.3.2. Erakundeetan	30
3.3.3. Herri Administrazioetan	32
3.3.4. Boluntariotzaren esparruaren osotasunean	32
4. Ekintza-lerroak	33
4.1. Boluntarioak dituzten erakundeak eta hauen sareak	35
4.2. Boluntariotzako agentziak	37
4.3. Boluntariotzaren Euskal Kontseilua	40
4.4. Udalak eta hauen elkarteak	41
4.5. Foru Aldundiak	43

4.6. Eusko Jaurlaritza	45
4.7. Beste zenbait eragile edo agente	49
1. eranskina / Boluntariotzaren esparrua	51
2. eranskina / Helburuak	52
3. eranskina / Ekintza-ardatzak	53
Aurkibidea	54